



*Aterpetxeak
elkarteei eman
die bildutako
dirua*

/ 2. orria

*Txikita-
Carrascal bidea
birgaitzea*

/ 4. orria

*Musika eta
umorearen
denboraldi
berria*

/ 5. orria

*Muskiz
Eskubaloi
Klubak 50 urte
beteko ditu*

/ 6. orria

Editoriala

Ilusioak berritzen

Herritar maiteak:

Ikasturte hasiera aprobetxatu nahi dugu ilusioak berritzen jarrai dezagun. Nire helburua ahalik eta lan onena egitea da; erabaki arduratsuak hartu nahi ditut, eta lan egin amets kolektibo bat, ikuspegi partekatu bat eraikitzeko; Muskiz gu guztiontzat eta etorkizuneko belaunaldientzat zer izan behar den pentsatzeko.

“*Nire helburua ahalik eta lan onena egitea da; amets kolektibo bat eraikitzeko lan egitea*”

Ildo horretatik, asko dira helarazi dizkiguzuen proposamenak (oinzkoentzako bidexkak, ikastetxeetan hobekuntzak, institutu berria, osasun zentroan hobekuntzak, irisgarritasuna...) zein betetzen ari garenak. Beste proposamen batzuk ere bagabiltza lantzen; esate baterako, pilotalekuko aldagelak berritzea, Ikastolako jolastokia estaltzea, tenis eta padeleko pistak estaltzea, aire libreko igerilekuak, wifi gune berriak...

Dena den, badakigu oraindik lan asko dugula egiteko; horrenbestez, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut, eta zuei eskatu kolektiboarentzako ideiak helarazteko, laguntza emango baitigute Muskizek etorkizunean nolakoa izan behar duen erabakitzeko orduan. Proposamenak helarazteko ohiko bideak erabil ditzakezue: webgunea, helbide elektronikoa, bilerak... Halaber, iradokizunetarako postontzietan utz ditzakezue, bai herrian zehar zein udal egoitzetan daudenetan.

Eskerririk asko lan hau egiteko gugan jarri duzuen konfiantzagatik.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Pobeñako aterpetxeak udalerriko zenbait elkarteri eman die bildutako dirua

Donejakue Bideko Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkarteak eta Muskizko Udalak 8.000 euro eman dizkiete guztira udalerriko zenbait elkarteri. Alez-Alez, Caritas, Hirugarren Adinekoen Elkarte eta Emakumeen Elkarte izan dira dohaintza jaso duten lau elkarteak, Muskizen gizarte-ongizatean eragina izateko helburuarekin. Diru-kopuru hori Pobeñako aterpetxean 2017. urteko udako denboraldian bildutako dohaintzei dagokie.

Aterpetxea kudeatzen duen elkarteak ez die batera dirurik kobratzen Muskizko Pobeña auzoan dauden instalazioetan ostatu hartzen duten lagunei.

Ordainetan, Espainiako nahiz kanpoko bisitariak euren dohaintzekin eskertzen dute abegi ona. Dohaintza ekintza altruista da, urtero egiten dena, eta meatzari herrian beharrik handiena duten herritarrei emandako laguntza aldarrikatu nahi dute horrekin.



Muskizko XXXVI. Nekazaritza Azoka izan da

Nekazaritza Azokaren XXXVI. edizioa arrakastaz egin da berriro ere. Bertaratu ziren lagunek gazta, fruta, barazki, ogi, ezti, lore, txokolate, euskal pastel, nekazaritzako makineria eta abarrekin osatutako 70 postu baino gehiago izan zituzten eskura. Ganaduaren arloan, ardi, behi eta ahuntzen artean 130 animalia baino gehiago izan ziren bertan, zaldien ohiko lehiaketaz gain. Goizean zehar, Fernández Terreros harategiak txahal bat erre zuen 110. urteurrena ospatzeko, eta azokara iritsitako bisitari guztiek dastatu ahal izan zuten 1,50 euro soilik ordainduta. Aurtengo edizioan, Lezamako Megalarte upategiko

Iñaki Aretxabaletak irabazi zuen Bizkaiko Txakolina saria, eta Galdakaoko Erdikoetxe upategiko Andoni Ojangurenak bi sari eskuratu zituen, beltzari eta gorriari zegozkionak irabazita.

Nekazaritza eta abeltzaintzako atal ohikoaren osagarri legez, aurtengo Azokan berrikuntza batzuk ere izan ziren. Esate baterako, adoptatutako txakurren erakusketa antolatu zuen Zaunk taldeak, eta zaldi gainean ibiltzeko aukera ere izan zen Azokako barrutian. Azokan zehar, tokiko merkataritza sustatzeko aukeren XI. Azoka ere egin zuten San Juan plazan, herriko denden hainbat saltokirekin.



Peñascal Ostalaritza Zerbitzuek “La Facultad” ireki dute udal hiltegia izandako eraikinean

Muskizko Udalak antzina udal hiltegia izandako eraikineren alokairua esleitu zuen, lehiaketa publiko baten bitartez. Peñascal Ostalaritza Zerbitzuei esleitu zitzairen, taberna-jatetxe bezala eraikina berriro irekitzeko eta gune hori berraktibatzeko helburuarekin, tokiko ekonomia piztu eta udalerrian turismoa sustatu dadin. Joan den irailean ireki zen lokala, “La Facultad” izenarekin.

Gogoratu behar da, proiektu honetan, enpresaren helburu nagusia tokiko ekonomia eta enplegua garatzea dela, prestakuntza prozesuetan ari diren pertsonentzat edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden laguntzat lanpostuak sortuz. Izan ere, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak zituzten pertsonen arazoak konpontzeko sortu zen Peñascal Ostalaritza Zerbitzuak enpresa. Horrez gain, ostalaritzako eskaintza ona egin nahi da, hala Muskizko udalerrirako, nola meatzari herritik hurbileneko ingururako.

Peñascal taldeak eta multzoak zuzendutako jatetxean sei zerbitzu mota bereizten dira: barrako pintxoetan kalitate bermea duen

janaria eskaintzen da, berritzailea bezain sofistikatua, eguneko menua, menu espresa, Ekoizaneekin lankidetzan ondutako plater ekologikoak, adostutako menuak edo kalitate handiko platerak. Hori guztia, ostalaritza zerbitzuetan prestakuntza profesional beteko langileek kudeatuko duten karta- eskaintzan oinarrituko da.

Jatetxe berrian, catering-zerbitzua ere emango da: bertako instalazioetatik kanpoko ekitaldietarako nahi duten kolektibo, elkarte edo erakunde guztiei eskainiko zaie zerbitzu hori.



Abanto Musika Eskolarekin egindako hitzarmena mantenduko da

Herritarrei musika ikasketak egitea errazteko asmoz, Muskizko Udalak mantendu egingo du joan den ikasturtean Abanto-Zierbenako Udal Musika Eskolarekin, Abanto Musika Eskolarekin, alegia, izenpetutako hitzarmena. Musikarako interesa duten musikaztarrek alboko udalerrian erroldatutako herritarren prezio berean egin ahal izango dituzte musika-ikastaroak, eta aldea gure Udalak ordainduko du.

Muskizko Udalak eman dezakeen dirukopuru gehienekoa 4.000 eurokoa izanik, azken zenbatekoa hori baino handiagoa izanez gero, diru-aldea Muskizko ikasleei kobratu beharko zaie, haietako bakoitzari dagokion tarifaren neurrian.

Interesa duten herritarrek Muskizko udaletxera jo beharko dute, eta errolda ziurtagiria emango diete bertan. Ondoren, agiri hori Abanto Musika Eskolan aurkeztu beharko dute, izena emateko garaian. Abanto-Zierbenako musika eskolak 4 urtetik gorakoentzako eskola-programak ditu txikientzat, eta, horrez gain, musika hizkuntza, instrumentuak eta talde instrumentala lantzeko ikastaroak helduentzat.



Geltokiko eta Meatzariko aparkalekuak margotu

Muskizko Udalak berriro margotu ditu tren geltokian eta Meatzari atzean kokatutako aparkalekuak. Beste era batera antolatuta eta margotuta, Udalak plaza gehiago eskaini ahal izango ditu bi aparkalekuetan.



San Juan eskolarako sarbide berria

Muskizko Udalak, San Juan ikastetxearen inguruko oinezkoen joan-etorriak hobetzea helburutzat hartuta, Autonomiako haur-jolasgunean dagoen bidegorritik eskolara joateko sarbide berria egin du, guztira 3.300 euroko aurrekontuarekin. Sarbide berriari esker, oinezkoak erosoago ibili ahal izango dira. Lan horrekin, auzotarren eskaerei erantzuna eman die Udalak.



Ikastetxeetako mantentze-lanak

Uda garaian zehar, Udalak 36.800 euro inbertitu ditu herriko hiru ikastetxetan mantentze-lanak egiten, hain zuzen ere, Cantarrana, Muskiz BHI eta Ikastola hezkuntza zentroetan. Egindako lanik gehienak erradiadoreak aldatzeko, gelak margotzeko eta ateak konpontzeko izan dira.

Bolatoki zaharrean jolas-parkea urbanizatu da

Muskizko Udalak La Campan bolatoki zaharreko eremuan kokatutako haurren jolas-parkea urbanizatzeko lanak amaitu ditu, BEZik gabe 15.938,00 euroko aurrekontuarekin. Era horretan, auzotarrek parkea hobetzeko egindako eskaerei erantzun die Udalak. Obran hormigoizko inprimatuko arrapala bat egin dute, eta grafitozko eskailera-maila bat hornitu eta gauzatu; jolasgunea ondoan dagoen bidearekin lotzeko balioko du.

Pinu-zurezko hesia ere egin dute, zeharrra horizontalekin, ingurua seguruagoa izan dadin. Horrez gain, eserlekuak eta zaborrontziak jarri dira. Udalerriko Musilfor S.L. enpresakoek egin zituzten lanak, eta, amaitu zutenean, parkean zeuden haur-jolasen ordeztasun berriak jarri zituzten, herritar txikienek goza ditzaten.



Birgaitzeko lanak Txikita-Carrascal bidean

Muskizko Udalak Txikita-Carrascal bidea birgaitzeko du, bi helburu nagusirekin: gaur egun oso hondatuta dagoen bide-zoruaren gainazala berritzea eta euri-uren kanalizazioa. Bidea egokitzeko lanen kostua 234.198,21eurokoa da guztira, BEZa barne. Ondorengo lanak egingo dituzte obrak iraungo duen bitartean: orain arteko bide-zorua fresatu eta jaso, hormigoizko areka berria egin, areka hondatu gabe dagoen tartetean hura konpondu, ibilgailuak gurutzatzeko bi gain-zabalera osatu, bide-zoruaren gainazala aglomeratuarekin berritu eta lurrazpiko ur-igarobideak sortu. Aurreikusita dagoenaren arabera, birgaitzeko lanek lau hilabete iraungo dute, eta faseka egingo dira, inguruko auzotarrei nahiz bestelako oinezkoiei eragindako kalteak gutxitzeko.



Ehiza, Arrantza eta Ingurumen Azokan parte hartzen beste behin

Muskizko Udaleko Ingurumen Sailak Ehiza, Arrantza eta Ingurumeneko XII. Azokan parte hartu zuen, hirugarren urtez jarraian. Aurtengo edizioan hainbat jarduera izan ziren, eta haien artean nabarmenenak ondorengo hauek, gehienek ustez: Txakolin Eguna, San Juanetik El Pobalera familia-ibilaldia, ibaiertzeko pasealekuan zehar, eta plazara itzuliz parte-hartzaile ugariarekin, eta Muskizko Babes Zibilak eskainitako bihotz-biriketako bizkortze eta eztarri-trabatze tailerrak.

Ehiza eta arrantzako Arraintxori kirol klubak antolatutako Azokan, helduentzat bideratutako programa ez ezik, herriko txikienentzako haur tailerrak ere antolatu zituzten, era askotako jarduerekin. Tailerrak, erakusketak, Babesten metodoarekin eskuratutako produktuak, ehi-zako txakurren nahiz hegazti harraparien ohiko erakustaldiak, eta hegaztien argazki erakusketa izan ziren guztien gozagarri.

Bisitariak haitzeko arraina eta basurdea dastatu ahal izan zituzten, Enkarterriko eta Kantauriko baserrietako nekazaritza-elikagaiak, mikologia erakusketak, landare sendagarriak eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoko fosilak; horiez gain, Trueba zentroak antolatutako dibulgazio-materialaren erakusketa ere izan zen. Urtero bezala, heriotzarik gabeko arrantza izan zen Barbadun ibaian, eta bertan parte hartu zuten Muskizko Arrantza Eskolako haurrek eta horretarako gogoia izan zuten bisitari guztiek.

Txakolin Eguna

Berrikuntza bezala, txakolinaren tradizioa berreskuratu eta hauspotzeko, Azokan Bizkaiko zenbait upategitako txakolina dastatu ahal izan zen, goizean zehar 2 euroko prezioan bina dastatze-aldi egiteko aukerarekin. Upategi guztien artean, Muskizko batzokirako bi bazkari zozketatu zituzten.



Hiri-altzariak mantentzeko eta konpontzeko hitzarmena berritzea

Muskizko Udalak Gallarreta Lantegiak S.L. enpresarekin adostutako hitzarmena berri-tu du, Muskizko hiri-altzariak mantentzeko, garbitzeko eta konpontzeko erantzulea izaten jarrai dezan, eserlekuai, mahaiei, barandei, kale-argiei eta iragarki-taulei dago-kienean. Ardura hori gauzatzearen ordaina 4.500 euroko zenbatekoa izango da hilero, aldeztatik dagozkie hilean egindako lan-zen zerranda aurkeztuta.

Udalak kontratatutako lanetan, honako lan hauek egingo dituzte: eserlekuak garbitu eta lixatu, kanpoaldean pintura metalikoa eman, torlojuak burdineria berri herdoil-gaitzarekin ordezkatu eta barandetan itsatsita izan daitezkeen eranskailuak kendu. Eserleku bakoitzaren egoeraren arabera, hilean behin 15 eserleku konponduko dituzte gutxienez, hiruhileko batez bestekoa 18 eserlekukoa izateko moduan. Bestalde, herritarrek erabil ditzaten prestatutako gune berdeetan edo parkeetan eserlekuak izatea bermatuko da une oro.

Gainera, enpresak udalaren iragarki-taula guztiak garbituko ditu hamabostean behin, epea agortu zaien kartelak eta iragarkiak nahiz udalarenak ez diren hirugarrenen jakinarazpenak kenduz, eta grapak, zeloak eta abar ere kenduz.

Musika eta umorea protagonista Meatzari Aretoko denboraldian

Azaroaren 17eko larunbatetik aurrera, 2018ko Umora eta Antzerki denboraldia hartuko du Meatzari Aretok. Emiliano Zapataren bizitzari buruzko "Esto no me lo esperaba" (*Hau ez nuen espero*) ikuskizunarekin estreinatuko da denboraldiko kartela. Geure bizitzetan izaten dugun jokabideari buruzko gogoeta ironikoa eta oso jostagarria. Azaroaren 24an, larunbatean, "El Chef" izango da, 19:30etik aurrera: sukaldaritzako masterclass bat, zeinetan zapoak eta usainak frustrazioarekin nahastuko diren. Bukatzeko, azken emanaldia Yllana konpainiak eskainiko du abenduaren

1ean, "Lo mejor de Yllana" (*Yllanaren onena*) ikuskizunarekin. Agertokiaren 25 urte eman ostean, euren ibilbidearen onena gogoraraziko digute lan honetan.





Elkarrizketa

Muskiz Eskubaloia Kluba ospakizunetan dabil

Muskizko Eskubaloia Kluba ospakizun garaia du, bizitzan behin bakarrik betetzen baitira 50 urte. Udalerriaren erreferente bihurtutako kluba da, historia luzea duena eta titulu ugari irabazi dituena... Denboraldiz denboraldi, aparra bezala hazten ari den kluba da. Eurentzat hain berezia den urte honetan, hurbiletik ezagutu dugu hasieratik kirolaren eta heziketaren aldeko apustua egin duen kluba.

G/ Zein da Muskiz Eskubaloia Klubaren gaur egungo egoera?

E/ Azken urte hauetan, gure kluba era esponentzian hazi da. Muskiz Eskubaloia Kluba gure udalerrian beti osasun ona izan duela esan dezakegu. Egia da azken urteetan bai parte-hartze mailan (jokalaria kopurua) eta bai kirol mailan (kategoria, arrakastak eta igoerak) bultzada nabarmena bizi izan dugula.

G/ Orduan, udalerrian erreferentziazko kirola dela esan dezakegu...

E/ Gure udalerrian kalitatezko kirol eskaintza garrantzitsua daukagu oro har.



“Azken urte hauetan, klubak bultzada nabarmena bizi izan du

Eskubaloia zehazki dagokionean, bere historia, tradizioa, arrakastak, gaurkotatua, bolumena eta abarregatik, inolako zalantzarik gabe esan dezakegu erreferentetako bat dela udalerrian eta meatze alde guztian.

G/ Gaur egunean, zenbat lagunek osatzen dute kluba?

E/ Muskiz Eskubaloia Klubaren 50. urteurreneko denboraldi berria hasten ari denean, azkeneko denboraldietan lortutako talde kopuru zabala mantentzen edo handitzen ahalegintzea da gure helburua. 2017-2018 denboraldian 17 talde izan ditugu. Txikietatik hasita, San Juan, Muskizko Ikastola, Cantarrana eskola, Muskiz BHI eta Marce-lo Gangoiiti ikastetxeen babesarekin, helduenetara bitartean, gure kirolari lotutako 270 fitxa inguru izan ditugu.

G/ Zaila al kirol klub bat mantentzea?

E/ Orain daukagun jokalaria bolumenarekin zaila baino zailagoa gertatzen zaigu gure kluba mantentzea; nola pertsona mailan, hala antolakuntza eta ekonomia mailan.

Material beharrak, aseguruak, fitxak eta kirola egiteko behar diren baliabideak ere modu esponentzian berean hazi dira, kluba urteetan zehar egiten joan denaren neurri berean. Hori dena kudeatzeko ezinbesteko giza baliabide gutxi dauzkagu. Horregatik, gure klubak urteak betetzen jarrai dezan, lehenago aipatu dugun guztia handitzea lortu behar da.

G/ Urteurrena ospatzeko ekitaldirik antolatu al duzue?

E/ Gure 50. urteurreneko denboraldi hau ospatzeko garai honetan, zenbait lanildo jorratzen ari gara. Gure asmoa da, aldi labur batean behin, urteurren honi oihartzuna emateko plataforma bezala balioko dugun ekitaldi bana egiten saiatzea. Esate baterako, Bizkaiko Superkoparen lehenengo edizioa irailean Muskiz-en jokatzeko lortu genuen. Urrian, urtero bezala, Eskubaloia Eguna ospatuko dugu, eta azaroan gure urteurrena gogoratzeko gala bat egingo dugu. Gainera, klubean hainbat proiektu jarraituko dugu lanean.



50 argazki, Muskiz sareetan sustatzeko

Muskiz sare sozialetan sustatzeko eta uda garaian zehar udalerriko argazkien bilduma bat osatzeko helburuarekin, Muskizko Udalak herritarrek parte hartzeko proiektu bat sustatu zuen berriro: udalerriko lekuen eta paraje naturalen argazkiak partekatutako behar ziren sare sozialen bitartez, #GureMuskiz2018 hashtaga erabilita.

Uda garaia bukatuta, hainbat lekutako 50 argazki inguru bildu dira. Ausaz egindako zozketaren irudi irabazleen artean, bat Facebooken bidez partekatua da, bestea Twitter bidez eta azkena Instagram bidez. Egileak Igor Alonso, Andoni González eta Matxalen Aio dira, eta Meatzari Aretoan egingo den Musika eta Umore jardunaldiarrako abonua bana eskuratuko dute.